



«Sabores de Paterna» markako produktuetan hautemandako listeriagatiko osasun-alertaren eguneratzea

Azken orduko berria

2019ko Irailak 11



Andaluziako Juntak emandako informazioari jarraikiz, honako autonomia-erkidego hauetan banatu ziren «Sabores de Paterna» markako produktuak: *Andaluzia, Gaztela eta Leon, Valentzia, Extremadura, Katalunia, Madril, Nafarroa eta Kantabria.*

Eskuragarri dagoen informazioaren argitan, orain arte ez da alerta honi lotutako giza kasurik konfirmatu.

AESANen jakinarazpena 11/09/19

(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/2019/Alerta_Listeria_11_9.htm)

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago kaltetutako produktuak merkaturatu izanaren berririk, ezta kaltetutako pertsonaren berririk.

Irailaren 7an, AESANek «**SABORES DE PATERNA SCA**» enpresako produktu guztiak erretiratzeko agindua eman zuen, Andaluziako juntako Osasuna eta Familiak Sailak marka horretako haragi urdaiztatuan hautemandako listeriagatiko beste osasun-alerta bat deklaratu eta gero.

Kautelaz merkatutik atera diren “Sabores de Paterna” markako produktuak:

- Butifarra
- Carne mechada
- Carne en manteca
- Chicharrón especial
- Chorizo Rosario
- Lomo en manteca
- Longaniza
- Manteca blanca
- Morcilla
- Paté de chorizo
- Paté de morcilla
- Pringá
- Zurrapa roja
- Zurrapa blanca



Listeriosia EZ da pertsonatik pertsonara kutsatzen. Kontaminatutako elikagaiak janda kutsatzen da batez ere eta amarengandik seme-alabei karenaren bidez edota erditzerakoan.

Arrisku handiko taldeak



Paziente immunodeprimituak



Adinekoak



Bularreko haurrak eta haur txikiak



haurdun dauden emakumeak

Gomendio orokorrak

- **Ondo etiketatutako produktuak bakarrik erosi.** Haragi-produktuen etiketek marka obal bat izan behar dute, zeinetan produktua merkaturatzeaz arduratu den establezimenduaren osasun-erregistroaren zenbakia (RGSEAA) agertzen baita.
- Etxean “**La Mechá**” markako produkturen bat dutenek, **ez dute kontsumitu behar**, eta dagoeneko kontsumitu badute eta sintomaren bat badute, osasun-zentro batera jo behar dute.
- **Haurdun dauden emakumeek erreferentziazko informazio ofiziala** kontsultatu behar dute, edo osasun-arloko profesionali galdetu.
- **Etxeetan, garrantzitsua da kutsadura gurutzatua saihestea.** Horretarako, beste elikagai batzuk uki ditzaketen gainazalak eta tresnak ondo garbitu eta erabili behar dira.

Informazio gehiago

ELIKAREN elikagaien segurtasunari buruzko atalean, agente kimiko eta biologikoei loturiko arriskuen fitxa teknikoak (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/arriskuen-fitxak/>) aurki daitezke. Fitxa horien artean dago, besteak beste, Listeriari buruzkoa:

Listeria buruzko fitxa teknikoa - ELIKA (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/listeria/>)

Horrez gain, infogramak (<https://www.elika.eus/eu/arriskuen-infogramak/>) eta fitxa teknikoen laburpenak ere ikus daitezke; besteak beste, Listeriarena:

Listeria infograma- ELIKA (https://www.elika.eus/wp-content/uploads/sites/10/2018/01/Listeria_eu_opt.pdf)

Agerraldiari buruzko erreferentziak

Berriak eta eguneratzeak- AESAN

(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/listados/aecosan_listado_noticias_2019.htm)

Osasun Sailaren nota - Eusko Jaurlaritza (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/andaluziako-listeriosi-agerraldia/ab84-oskcon/eu/>)

Informazioaren eguneraketa, Euskadiko osasun arloko profesionalentzat - Eusko Jaurlaritza

(<https://www.osakidetza.euskadi.eus/albistea/2019/listeriosis-informazioaren-eguneraketa-euskadiko-osasun-arloko-profesionalentzat/ab84-procon/eu/>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)